

2.- Obra eta Zerbitzuen Foru Planean (OZFP) atzera botatako diru-laguntzak, 12.014.791,24 €-ko zenbatekoan.

2011ko ekitaldian, Arabako Foru Aldundiak atzera bota zituen Obra eta Zerbitzuen Foru Planean Tokiko Erakundeei aldeztu aurretik emandako diru-laguntzen 71 espediente. Atzera botatako diru-laguntzen kopuruak 12 milioi euroak gaitzen zituen, eta **Aldundiak bere aurrekontu orokorrean sartu zuen zenbateko hori.**

EUDELe beti defendatu izan du funts horiek hitzartutako zergen udal partaidetzatik datozela, eta, beraz, Tokiko Erakundeenak direla ulertu beharko litzatekeela eta beraien artean banatu beharko liratekeela.

EUDELe egindako kudeaketen emaitza gisa, Arabako Batzar Nagusietan 2013ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuran, mozio bat onartu zen; horren bitartez, Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu zioten berriz ordaintzeko Arabako Tokiko Erakundeei, Vitoria-Gasteizko Udalari izan ezik (ez baitu OZFPn parte hartzen), atzera botatako diru-laguntzen zenbatekoa; hain zuzen ere, %25 urteko, 2014tik 2017ra bitarteko ekitaldietan, TEFFEn aparteko ekarpen gisa.